# Berdintasuna
# Igualdad

## AURREKONTUAK GENERO IKUSPEGIAREKIN

Udaleko aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeko prozesua 2013an hasi zen. Horrek ez du esan nahi prozesua hasi aurretik udalak genero-ikuspegirik ez zuenik, ez eta orain erabat bere egin duenik; prozesu mailakatua da non, lehenengo eta behin, orain arte lortu dena bisibilizatuko den, gai horretan aurrerapausoak ematen jarraitzeko, eta beti ere, indarrean dagoen Berdintasuna Planarekin harreman estuan.

Aurrekontuak, generoari dagokionez, neutroak ez diren ideiatik abiatuta -hau da, ez dietela berdin eragiten emakumezko eta gizonezkoei, eta beraz, laneko sexu-banaketan oinarritutako antolaketa soziala finkatu edo desorekatzen dutela-, metodologia propioa osatu da emakume eta gizonezkoetan eragin bereizgarri handiagoa duten aurrekontu-programak identifikatzeko.

Jar dezagun adibide bat: mendekotasun-mailaren bat dutenentzat eskainitako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzura bideratutako aurrekontuek batez ere emakumei eragiten die, zaintzako profesionalen kolektiboetan, zerbitzua jasotzen dutenen artean, eta zerbitzuak eskaintzen duen “atsedenaz” baliatzen diren etxeko zaintzaileen artean gehiengoa direlako. Beraz, laguntza hori murrizteak edo kentzeak ondorio larriak ekar diezaizkie batez ere emakumeei. Aldiz, partida bat hiriko futbol-zelaian inbertitzen bada onuradunak gizonezkoak izango dira gehienbat, jokalariak, futbol-klubetako zuzendaritza-kideak eta zaletu gehienak gizonezkoak direlako. Lehenengo kasuan, “bizitzaren jasangarritasuna” deritzonerako ezinbestekoak diren zaintzei buruz hitz egiten ari gara, eta bigarren kasuan, berriz, inplikazio ekonomikoak dituen aisialdiko jarduera bati buruz. Denboraren erabileraren gaineko hainbat ikerketek diote, gainera, emakumeek denbora gehiago ematen dutela ordaindu gabeko zaintza-jarduerak betetzen eta aisialdi gutxiago izaten dutela; gizonek, aldiz, denbora gehiago ematen dute ordaindutako lanean eta aisialdian, eta horrela, betikotu egiten da hain baliotsua den denboraren banaketa desorekatua. Azken finean, emakume eta gizonezkoen errealitate ekonomiko eta sozialak, ikuspegi horretatik, ezberdinak dira, eta beraz, aurrekontu publikoek era ezberdinean eragiten die bati eta besteari.

## PRESUPUESTOS CON PERSPECTIVA DE GÉNERO

El proceso para la integración de la perspectiva de género en los presupuestos del Ayuntamiento se inició en 2013. No es que antes del inicio del proceso el presupuesto municipal careciera completamente de perspectiva de género, ni que ahora la tenga totalmente asumida, sino que se trata de un proceso de carácter progresivo, en el que en primer lugar se visibiliza lo ya alcanzado para seguir dando pasos en esta materia, siempre en estrecha relación con el Plan de Igualdad vigente.

Partiendo de la idea de que los presupuestos no son neutros en cuanto al género –es decir, que no afectan de la misma manera a mujeres y a hombres y que por tanto contribuyen a afianzar o a desestabilizar la organización social basada en la división sexual del trabajo-, se ha conformado una metodología propia para identificar los programas presupuestarios de mayor impacto diferencial en mujeres y hombres.

Pongamos un ejemplo: el presupuesto destinado al Servicio de Ayuda Domiciliaria para personas con algún grado de dependencia beneficia sobre todo a las mujeres, ya que son mayoría en los colectivos de profesionales del cuidado, entre las personas atendidas, y entre las cuidadoras del ámbito familiar a quienes beneficia el “descanso” que proporciona el servicio. Por tanto, el recorte o supresión de esta ayuda puede tener graves consecuencias, sobre todo para las mujeres. Sin embargo, si se destina una partida a la inversión en el estadio de fútbol de la ciudad, las personas beneficiarias serían en mayor medida hombres, puesto que los jugadores, las directivas de los clubes de fútbol y la mayoría de las personas aficionadas, lo son. En el primer caso, estaríamos hablando de actividades de cuidado imprescindibles para lo que se viene denominando la “sostenibilidad de la vida”y. en el segundo caso, de una actividad de ocio con implicaciones económicas. Diversos estudios del uso del tiempo muestran, además, que las mujeres dedican más tiempo a actividades de cuidado no remuneradas y que disfrutan de menos tiempo de ocio, mientras que los hombres dedican más tiempo al trabajo remunerado y al ocio, perpetuándose así un reparto desigual de un recurso tremendamente valioso: el tiempo. Al fin y al cabo, las realidades económicas y sociales de mujeres y hombres, desde esta perspectiva, son diferentes, por tanto los presupuestos públicos afectan de distinta manera a unas y a otros.

Aurrekontu publikoek eragina dute kolektibo ezberdinek izan ditzaketen baliabideetan: emakumeak, gizonak, nagusiak, gazteak, haurrak edo migratzaileak, adibidez. Aurrekontuak genero ikuspegiarekin egiteak helburu bikotza dauka:

1. Aurrekontuek emakumeengan eta gizonezkoengan duten eragina ezagutzea, ahal dela beste diskriminazio-ardatz batzuk ere kontuan harturik, hala nola, adina, estatus migratzailea edo errenta-maila.

2. Berdintasuna bultzatzeko tresna izatea.

Horretarako, Berdintasun Saila, Aurrekontuen Sailarekin lankidetzan, urtero argitaratzen den azterketa-txosten batez eta Sailei egiten zaizkien gomendio-txostenez baliatzen da norbere aurrekontu-proposamenak aurkeztu aurretik. Horrela, Berdintasunaren Planaren barruan ekintza eraldatzaileak egiteko partida espezifikoak esleitzen dituzten aurrekontu -programen kopurua igo egin da.

2017ko aurrekontuan, Berdintasunekoaz gain, 13 Sailek esleitu dituzte partida horiek 1.590.537,61 €-ko balioarekin, hau da, aurrekontuaren % 0,38.

Berdintasuneko aurrekontu-programak, oso osorik helburu horretarako zuzenduta dagoena, aurrekontu guztiarekin alderatuta portzentajezko puntuaren hamarren bat jaitsi da azkeneko hiru urteetan, baina termino absolutuetan eboluzio desberdina izan du.

Los presupuestos públicos tienen impacto sobre los recursos de los que puedan disponer distintos colectivos de personas: mujeres, hombres, mayores, jóvenes, infancia o personas migrantes, por ejemplo. El objetivo de elaborar unos presupuestos con perspectiva de género es doble:

1. Conocer el impacto de los presupuestos sobre las mujeres y los hombres, atendiendo, en lo posible, a otros ejes de discriminación como la edad, el estatus migratorio o el nivel de renta.

2. Servir de herramienta para promover la igualdad.

Para ello, el Departamento de Igualdad, en colaboración con el de Presupuestos, se sirve de un informe de análisis que se publica cada año y de otras herramientas como informes de recomendaciones a los Departamentos, previos a la presentación de sus respectivas propuestas presupuestarias. De esta forma, se ha logrado aumentar el número de programas presupuestarios que consignan partidas específicas a la realización de acciones transformadoras en el marco del Plan de Igualdad.

En el presupuesto de 2017, 13 Departamentos, además del de Igualdad, han consignado estas partidas por un valor de 1.590.537,61 €, lo que supone el 0,38 % del presupuesto.

El programa presupuestario de Igualdad, destinado íntegramente a este objetivo, ha sufrido un descenso de una décima de punto porcentual respecto al total del presupuesto en los últimos tres años, si bien en términos absolutos ha tenido una evolución distinta.

| Berdintasuneko aurrekontu-programaren eboluzioa / Evolución del programa presupuestario de igualdad | | | |
|---|---|---|---|
| | 2015 | 2016 | 2017 |
| Portzentuala / Porcentual | 0,20 % | 0,19 % | 0,18 % |
| Absolutua / Absoluto | 718.780,72 € | 705.604,75 € | 747.661,04 € |

Aurrekontuak, urtero, genero ikuspegiarekin egiteak esan nahi du hazkunde mailakatua lortu behar dela, berdintasun-programa espezifikoarena eta, batik bat, beste programa batzuetan eta Udaleko gainontzeko sailetan berdintasunera bideratutako gastu-portzentajearena; horrez gainera, partidak zuzen betetzen direla ere zaindu beharra dago, epe ertain eta luzean emakume eta gizonezkoen berdintasunaren gaineko eragin neurgarria izan dezaten.

El reto de elaborar anualmente lo presupuestos con enfoque de género es conseguir un aumento gradual tanto del programa específico de igualdad como sobre todo, del porcentaje de gasto destinado a igualdad en otros programas y por el resto de áreas y departamentos municipales, y, además, velar por una adecuada ejecución de las partidas, de manera que tengan un impacto medible sobre la igualdad de mujeres y hombres a medio y largo plazo.